

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA	Mota: Erizaintzako zientziak
Ikasgaia: Erizaintza klinikoa III	Eskolen kronograma: 1. lauhilekoa
Kodea: 27557	Hizkuntza: Euskara/Gaztelania
Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua Osasun-arazo mental ohikoenak dituzten pertsona helduen azterketa. Disfuntzioei lotutako zainketa-beharrak. Irizpen profesionalak egitea: klinikoak, terapeutikoak eta etikoak. Horretarako bidea: datuen analisia, arazoak lehenestea, planifikatzea eta erabakiak hartzea. Zainketa-planak diseinatzea.	ECTS kredituak: 6
Sartzeko eskakizunak/gomendioak Bat ere ez	Maila: 3.a

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
Irakasgaiaren arduraduna M ^a Encarnación Betolaza López de Gámiz	945 218082	encarnacion_betolaza@ehu.eus
Euskarazko lerroko irakaselak Eva Pereda Pereda Shaila Herrero Díaz	945219001	eva.pereda@ehu.eus ; shaila_herrero002@ehu.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Osasun mentaleko arazoak azaltzea, bizi-zikloan eginiko erizaintzako esku-hartzeak identifikatuta.
- G2. Osasun mentaleko arazoak dituzten eta egoera zailetan dauden pertsonen edo taldeen zainketak planifikatzea, kontuan izanik gizarte-laguntza baliabideak.

ZEHARKAKO GAITASUNA

- 1.ZG **Kritikan eta gogoetan oinarrituta ikastea.** Egoerak zalantzan jartzeko eta erantzunak emateko gaitasuna, informazioari zentzu bat emanez prozesu sortzaile, intuitibo, logiko, analitiko eta abarren bidez, prozesua jarraitua izanik.
- 2.ZG **Komunikazio idatzia.** Modu argi, ordenatu eta laburbilduan komunikatzea, arauen (lexikoak, semantikoak, gramatikalak...) arabera idatziz eta egituraturako testu akademikoak eginez.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Osasun mentaleko arazoen kontzeptua, etiologia, fisiopatologia eta haren ezaugarri diren zeinu klinikoak deskribatzen du, baita dagozkion zainketak ere.
- IE2. Osasun mentaleko zainketak behar ditzaketen eguneroko bizitzako egoerak identifikatzen du, eta taldeko esku-hartze programa bat diseinatzen du zainketa horiek sustatzeko, lan akademikoko irizpideei jarraituz.
- IE3. Artatzen dituen pertsonen osasun mentaleko beharrei egokitutako erizaintzako arreta planifikatzen du.
- IE4. Ikasgelan parte hartzen du, behatzen du eta dituen elkarrekintzetan kritikak modu eraikitzailean egiten ditu.
- IE5. Erizaintzako esku-hartzeko taldeko proiektu batean kokatutako taldeko saio batean buru da.
- IE6. Taldeko saioan norberaren lidergoa aztertzen eta hausnartuz kritikitzen du.

EDUKIAK

I. UNITATEA: OSASUN MENTALERAKO PREBENTZIOA, SUSTAPENA ETA HEZIKETA

- 1.1 Osasun mentalaren kontzeptua. Kultura, etnia eta osasun mentala. Ohiko bizitza eta osasun mentala: Aldaketa-, krisi-, galera-egoerei aurre egitea eta haiek ebaztea. Estigma. Osasun mentalaren politikak eta estrategiak. Osasun mentala osasun-sisteman. Osasun mentalerako sustapena, prebentzioa eta heziketa.

Mintegia: Talde dinamika.

II. UNITATEA: OSASUN MENTALEKO ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEN ERIZAINZAKO ZAINKETAK

- 2.1 Osasun mentaleko zainketen bilakaera historian zehar. Osasun mentaleko erizaina eta ingurune terapeutikoa. Etika- eta lege-alderdiak. Harremana oinarritzko tresna terapeutiko gisa. Erizainaren autozainketa.
- 2.2 Erizaintzako arreta prozesua eta zainketen jarraipena OMean. Balorazio psikopatologikoa.
- 2.3 Osasun mentaleko arazo garrantzitsuenak haurtzaroan, nerabezaroan eta adin aurreratuan.
- 2.4 Antsietate-nahasmenduak.
- 2.5 Nahasmendu obsesibo konpulsiboak.
- 2.6 Eskizofrenia eta beste nahasmendu psikotiko batzuk.
- 2.7 Umorearen nahasmenduak.
- 2.8 Nortasun-nahasmenduak.
- 2.9 Substantzien kontsumoak edo adikzio-jokabideek eragindako nahasmenduak.
- 2.10 Elikadura-portaeraren nahasmendua.
- 2.11 Suizidioa.
- 2.12 Nahasmendu disruptiboak, bulkaden kontrolaren nahasmenduak eta jokabidearen nahasmenduak.
- 2.13 Nahasmendu mental larria eta iraunkorra duen pertsona. Errehabilitazio psikosoziala, indartze terapeutikoa, tratamenduari atxikitzea eta zainketen jarraipena.

Ikasgelako praktikak: Talde-lana ikasgelan: kasuak aztertzea eta zainketa plana egitea

III. UNITATEA: AURRE EGITEA ETA EGOKITZEA ZAINKETA-EGOERA KONPLEXUETAN.

3.1 Aurre egiteko eta egokitzekeo estrategiak zainketa-egoera konplexuetan.

3.2 Taldeko lidergoa: erizaina aldaketa-eragile, taldeen bitartez.

Mintegia: Taldeen dinamika

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGIA ORDUAK	IKASGELAKO PRAKTIKAK
I	Eva Pereda Pereda	5	0	0
II	Eva Pereda Pereda	40	0	4
III	Eva Pereda Pereda	6	20	0
	Shaila Herrero Diaz (Taldea mintegian banatzean parte hartzen du)	0	20	0
GUZTIRA		51	20	4

METODOLOGIA

Adierazitako gaitasunak garatzeko, ikasleen parte-hartze aktiboa eta ikasketarako konpromiso handia eskatzen dituen lan-metodologia planteatzen da. Ezagutza honako hauen bitartez osatuko da:

- **Klase magistralak.** Talde handietan emandako eskolak izango dira; horietan irakasleak funtsezko ideiak, bideo emankizunez ilustratuak, eta kasuak jorratuko ditu. Ikasleak horiei guztiei buruz hausnartu eta lan egin beharko du beste ikaskide batzuekin lankidetzan. Material guztia eskola eman aurretik egongo da eskuragarri Campus Birtualean, ikasleak ikasi beharreko gaia aurretiaz prestatu ahal izan dezan.
- **Nork bere kasa ikasteko jarduerak.** Informazioa bilatu, irakurri eta analizatzea osasun mentaleko erizaintzari eta osasun-zientzietan lotutako datu-baseetan, baita irakasgaiaren gaiei buruz gomendatutako bibliografian ere.
- **Ikasgelako praktikak.** Ikasleek, talde txikitan, OMrekin lotutako kasuak aztertu eta arazoak ebatzi beharko dituzte, eta gainerako taldeen aurrean aurkeztu beharko dute egindako lana.
- **Mintegia.** Ikasleek, irakasleak lagunduta, esperientziaren bidez ikasiko dute. Horretarako, taldekako egoerak eszenaratuko dituzte, eta, halakoetan, ikasle bakoitza aurretik planifikatutako saio batean buru izango da. Mintegiak nahitaezkoak izango dira.

Eskolak edo ebaluazio-jarduerak ezin badira aurrez aurre eman, edo ezinbesteko kasuren bat dela-eta bertan behera geratzen badira, eskolak urrunetik emango dira Unibertsitatearen baliabideak erabilita.

Gida honetako jarduera eta ebaluazio-irizpideetan egiten diren aldaketa guztiak ikasleei jakinaraziko zaizkie behar besteko aurrerapenez, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ezarritako irizpideei jarraituz.

LAN PRESENTZIALA (75 ORDUAK)		
Klase magistrala	Mintegia	Ikasgelako praktikak
51	20	4

LAN EZ-PRESENTZIALA (75 ORDUAK)		
Gidatutako lana	Bakarkako lana	Talde-lana
45	5	25

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

EBALUAZIO-SISTEMA

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Parte-hartzean oinarritutako ikasgaia denez, **ebaluazio jarraitua egingo da. Eskoletara bertaratzea eta taldearekiko asistentzia edota interakzioa nahitaezkoa da, dela telepresentzialtasunaren formatuan, zirkunstantziek horretara behartzen badute.**

Eskoletara joaterik ez badu, ikasleak irakasleari jakinarazi beharko dio, irakasleak ebaluazio jarraituko irizpideak beste egoera horretara egoki ditzan.

Beraz, gaitasun guztiak landu direla ziurtatzeko, ebaluazio-jardueren multzo bat ezartzen da; horrek ikasle bakoitzak prestakuntza-aldian izan duen bilakaera baloratzea ahalbidetzen du. Hori horrela izango da alde batera utzita irakaskuntza presentziala edo ez-presentziala izan behar den.

Ebaluazio jarraituko sistemak honako jarduera hauek ditu:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) % 40
- BANAKADO LANA
 - Taldeko saioa zuzentzea % 15
 - Autokritika % 10
 - Behaketa eta parte-hartzea taldeko saioetan % 10
- TALDEKO LANA:
 - Zainketa Plana garatzea % 10
 - Lan idatzia: Taldean esku hartzeko programa % 15

Irakasgaiaren azken kalifikazioa ebaluazio-jarduera guztien batura izango da.

Azken kalifikazioa gainditzeko, **ezinbestekoa da notaren % 50 lortzea gaitasunak ebaluatzen erabiliko diren jarduera edo zeregin guztietan.**

Ebaluazio jarraituan, zereginak egiteko eta lan puntuagarriak entregatzeko datak irakasgaiaren kronograman zehaztuko dira. Kronograma ikasleen eskura egongo da ikasturtea hastean.

Azken azterketara ez joateak «Ez aurkeztua» kalifikazioa dakar berekin.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
GE1	IE1	Klase magistralak Jarduera kooperatiboak, ikasgelan	Idatzizko azterketa: erantzunak justifikatzen dituzten test-galderak	% 40
GE2	IE3		Zainketa Plana garatzea	% 10
GE2	IE5	Mintegia	Taldeko saioa zuzentzea	% 15
ZG1	IE6	Mintegia	Autokritika	% 10
ZG2	IE4	Mintegia	Behaketa eta parte-hartzea taldeko saioetan	% 10
GE2 + ZG2	IE2	Mintegia	Lan idatzia: Taldean esku hartzeko programa	% 15

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Ebaluazio jarraituko sistema duen irakasgaia da, eta amaierako probak edo azterketak amaierako kalifikazioaren % 40ko balioa du; beraz, ikaslea ez bada aurkezten azken probara, automatikoki egingo dio uko dagokion deialdiari, 2017ko martxoaren 13ko EHAren 12. artikuluan (ebaluazio-sistema) jasotakoaren arabera.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta, ebaluazio-sistema jarraituan parte hartu ezin duten ikasleek edo azken ebaluazioko sistema hautatzen duten ikasleek azken proba baten bidez ziurtatu ahal izango dute irakasgaiari lotutako ezagutzak eta gaitasunak eskuratu dituztela, eta hor lotutako nota irakasgaiaren notaren % 100 izango da. Osasun mentaleko arazoei eta arazo horiek dituzten pertsonen dagozkien erizaintzako zainketei buruzko azterketa idatzi bat izango da, eta zainketa-plan bat egiteko kasu praktiko bat ere izango du. Azken proba horrek taldeko esku-hartzeko programa batean kokatutako taldeko saio batean buru izatea ere hartuko du barne.

Azken kalifikazioa gainditzeko, ezinbestekoa da notaren % 50 lortzea gaitasunak ebaluatzeko erabiliko diren jarduera edo zeregin guztietan.

Azken ebaluazioko sisteman, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- IDATZIZKO AZTERKETA % 40
- PRAKTIKAK EGITEA % 35
- LAN IDATZIA: TALDEAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA % 15

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	GUZTIZKO KALIFIKAZIOAREN %
GE1 GE2	IE1 IE3	Klase magistralak Jarduera kooperatiboak, ikasgelan	Idatzizko azterketa: erantzunak justifikatzen dituzten test-galderak Zainketa Plana garatzea	% 40 % 10
GE2	IE5	Mintegia	Taldeko saioa zuzentzea	% 15
ZG1	IE6	Mintegia	Autokritika	% 10
ZG2	IE4	Mintegia	Behaketa eta parte-hartzea taldeko saioetan	% 10
GE2 + ZG2	IE2	Mintegia	Lan idatzia: Taldean esku hartzeko programa	% 15

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Lehenengo deialdian behar bezalako gaitasun-garapena lortu ez duten ikasleek (gutxienez 10etik 5 ebaluazio-proba bakoitzean) beste aukera bat izango dute, bigarren deialdian, gainditu gabeko horietan duten maila erakusteko. Gainditutako proben kalifikazioak ikasturtea amaitu arte erreserbatuko zaizkie.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Deialdi arruntean zehaztutakoak deialdi bereziko balioko du. Deialdi arruntean 5ekin edo nota altuagoarekin gainditutako ebaluazio-jardueren notak gorde egingo dira.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- Cibanal Juan L. Técnicas de comunicación y relación de ayuda en Ciencias de la Salud. 3. ed. Madril: Elsevier; 2014.
- Eby L, Brown NJ. Cuidados de Enfermería en Salud Mental. 2. ed. Madril: Pearson; 2010.
- Fornés Vives J, Sánchez Ortuño MM. Enfermería de Salud Mental y Psiquiátrica. Valoración y cuidados. Madril: Paramericana; 2022.
- Galiana JL. Enfermería psiquiátrica. Barcelona: Elsevier; 2016.
- Jordan Halter M. Varcarolis. Manual de planes de cuidado en enfermería psiquiátrica. 6. ed. Madril: Elsevier, 2019.
- Megias-Lizancos F, Serrano MD. Enfermería en Psiquiatría y Salud Mental I y II. Madril: DAE; 2009 (2021. edizioa Enferteca bidez eskuragarri).
- Rigor A, Ugalde M. Enfermería de salud mental y psiquiátrica. 2. ed. Madril: Elsevier; 2003.
- Shives LR, Núñez O, Álvarez I. Enfermería psiquiátrica y de salud mental. Conceptos básicos. 6. ed. Madril: Mc Graw Hill; 2007.
- Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Fomento de la seguridad: alternativas al uso de contenciones. Toronto: RNAO; 2012. Eskuragarri: https://rnao.ca/sites/rnaoca/files/bpg/translations/D0045_Contenciones_2012.pdf
- Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Valoración y cuidado de los adultos en riesgo de ideación y comportamiento suicida. Toronto: RNAO; 2009. Eskuragarri: https://rnao.ca/sites/rnaoca/files/2014_BPG_Suicidio_MAR2014.pdf
- Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Intervención en crisis: abordaje del trauma en adultos en las cuatro primeras semanas. 3. ed. Toronto: RNAO; 2019. Eskuragarri: <https://rnao.ca/sites/rnaoca/files/bpg/translations/Intervencion en Crisis RNAO Best Practice Guideline.pdf>
- Erizaintzako Kontseilu Nagusia. Código deontológico de la enfermería española. Madril: Consejo general de colegios oficiales de diplomados en enfermería; 1998.

Sakontzeko bibliografia

- Asociación Estadounidense de Psiquiatría. Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales (DSM-5). Madril: Editorial Médica Panamericana; 2014.
- Heather T. Nanda Internacional. Diagnósticos Enfermeros Definiciones y clasificación 2021-2023. Bartzelona: Elsevier; 2021.
- Novel G, Lluch MT, Miguel MD. Enfermería psicosocial y Salud Mental. Bartzelona: Elsevier; 2005.
- Vallejo Ruiloba J. Introducción a la psicopatología y psiquiatría. 8. ed. Bartzelona: Elsevier-Masson; 2015.

Interneteko helbideak

- Asociación Española de Enfermería de Salud Mental (<https://www.aeesme.org/>)
- Bibliopsiquis. Revistas de psiquiatría – VOL: www.bibliopsiquis.com
- CIE-11. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena , 11. berrikuspina (<https://icd.who.int/es>)
- Horatio: European Psychiatric Nurses (<https://www.horatio-eu.com/>)
- Osasun mentalari buruzko informazioa: <http://www.nimh.nih.gov/health/publications/espanol/index.shtml>
- International Society of Psychiatric-Mental Health Nurses (<https://www.ispn-psych.org/>)
- Mental Health Europe (MHE) (<https://www.mhe-sme.org/>)
- Drogei buruzko Plan Nazionala: <https://pnsd.sanidad.gob.es/>
- Drogei buruzko informazioa: www.sabermasarriesgarmenos.net
- www.enfermeriaysaludmental.com
- www.psiquiatria.com

Ikasgaiekin lotutako aldizkariak:

- Archives of Psychiatric Nursing (<https://www.psychiatricnursing.org/>)
- Enfermería Clínica (<https://www.elsevier.es/es-revista-enfermeria-clinica-35>)
- International Journal of Mental Health Nursing (<https://onlinelibrary.wiley.com/journal/14470349>)

- Issues in Mental Health Nursing (<https://www.tandfonline.com/journals/imhn20>)
- Journal of Psychiatric and Mental Health Nursing (https://onlinelibrary.wiley.com/journal/13652850?gclid=CjwKCAjwu_mSBhAYEiwA5BBmf8kvh_PtLmeil_sSQ5swoDNGTZjMe4jxJDTfNe95YkY89iJuXXyG4mhoCdwgQAvD_BwE)
- Journal of Psychosocial Nursing and Mental Health Services (<https://journals.healio.com/journal/jpn>)
- Perspectives in Psychiatric Care (<https://onlinelibrary.wiley.com/journal/17446163>)
- Revista CuidArte (<http://www.revistas.unam.mx/index.php/cuidarte>)
- Revista Latino-Americana de Enfermagem (<http://rlae.eerp.usp.br/>)
- Revista Presencia: <http://ciberindex.com/index.php/p>
- Revista ROL de Enfermería (<https://e-rol.es/>)

Intereseko pelikulak:

- Cisne negro
- El rey pescador
- Mr. Jones
- Tengo ganas de ti
- Historias del Kronen
- Inocencia interrumpida
- Cuando un hombre ama a una mujer

OHARRAK

2018ko maiatzaren 24ko UPV/EHUko Graduoko Batzordeko akordioaren arabera, irakasgai hau gainditzea aurrebaldintza da 4. ikasturteko Praktikumetan matrikulatzeko. Egoerak aldaketak egitera behartzen badu presentzialtasunari dagokionez eta gida honetan jasotako alderdiren bat aldatu behar bada, eGelan argitaratuko dira zehaztapen eta egokitzapen guztiak.

TUTORETZAK

Irakasgaiko irakasleekin tutoretza-saioak eskatzeko, mezu elektronikoko bat bidali behar zaio irakasgaiaren arduradunari: encarnacion_betolaza@ehu.eus. Edonola ere, tutoretzak 3-4 ikasleko taldeetan eskatzen saiatuko dira ikasleak.